


## Maiatzak 17a, Homofobia, transfobia eta bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna

### **Euskadiko gazte gehien-gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aldekoak, bai eta sexu-aldaketaren aldekoak ere, agertzen dira**

Gazteen Euskal Behatokiak 2020an sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari eta sexu-aldaketari buruzko iritziak galdetu zizkien Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1.500 gazteri.

Galdetutako gazte gehien-gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aldekoak azaldu ziren (% 98), bai eta sexu-aldaketaren aldekoak ere (% 97). Aldekoen kopuruak gora egin du azken urteotan.

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde eta sexu-aldaketaren alde dauden Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Euskadiko gazteak" seriea)

2020ko datuok "Euskadiko gazteak 2020" ikerketaren aurrerapen datuak dira. Ikerketa hori lau urtean behin burutzen du Gazteen Euskal Behatokiak *Euskadiko gazteak* bildumaren barruan. Bertan 30 urtetik beherako gazteen iritziak eta jarrerak aztertzen dira, horretarako egindako inkesta baten emaitzak oinarri hartuta.